

Euskal gatazka binetatan: 1998ko eta 2006ko su-etenetan Hego Euskal Herriko egunkarietan landutako markoak

Tesiaren egilea: Bitor Alonso Fradua

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila

Doktorego-programa: Gizartea, Politika eta Kultura

Jakintza-arloa: Komunikazioa

Tesi-zuzendaria: Mario Zubiaga Garate eta Edorta Arana Arrieta

Tesiaren laburpena:

Euskal gatazkaren gaiak protagonismo handia izan du hamarkada luzez komunikabideetan. Albisteetan eta iritzi-artikuluetan presente egon da eta, testuinguru horretan, iritzia indartzeko ahalmena daukaten egunkarietako bineta politikoak ez dira salbuespena izan.

Indarkeria zuzena dagoen gatazketan su-etena aldean arteko hurbilketarako aukera eskaintzen duen gertakaria da eta, ildo horretatik, lan honek tira politikoen erabilera aztertu du gatazkaren bi une zehatzetan. Hain zuzen ere, azterketa-lan honek 1998an eta 2006an ETAK iragarritako su-etenetan eta ondoren abian jarritako negoziazio-prozesuetan Hego Euskal Herriko egunkari nagusiek konponbide adostuaren aukeraren aurrean zer-nolako jarrera izan zuten aztertu du, argitaratutako tira politikoen bitartez.

Hortaz, komunikabide bakoitzak landutako diskurtsoa aztertzeko helburuarekin, Hego Euskal Herriko zortzi egunkaritan euskal gatazkaren gaia jorratzen duten 4.000 bineta politiko baino gehiago aztertu dira, neurri egindako metodologia baten bitartez.

Egindako ikerketak balio izan du aztertutako egunkariak une bakoitzean zer-nolako diskurtsoa babestu zuten zehazteko. Horretaz gain, bi su-etenetan argitaratutako tira politikoen bitartez landutako diskurtsoak alderatuz, konponbide adostuaren aukeraren aurrean komunikabide ezberdinetan izandako jarrerak zer-nolako garapena izan zuten ondorioztatu ahal izan da.

Horrela posible izan da zehaztea nola su-eten batetik bestera egunkari batzuetan konponbide adostuaren eta distentsioaren aldeko diskurtsoa indartu zen bitartean, beste egunkari batzuk bakea sustatzea helburu duen kazetaritzatik urrundu zirela eta konponbide adostuaren kontrako diskurtso oldarkorragoa jorratu zutela.